

«Komuniño karuak, kontxo»!

Astelen arratsaldea da. Egoaldi ederra. Yontxu bere illobatxoa eskutik dauala, badator gure Txomin. Mutiko koxkorra etenbarik bere kitarreari ekiten, baiña Txomiñen buru-biotzak urriñagoko zerbaitetan ebiltzan. Yontxu olgetara bialduta, guk biok jarraitu geunduan bidean zear.

— Ez dozu uste, Kelmen jauna, gaur umeak askotxo kostaten dirana, Jaungoikoak emonala ekarteko be?

— Egia, Txomin, Jaungoikoak emonala eta norberak irabaziala, leenengo bakartxoak iruntziten baditu, jakiña!

— Or daukazu Yontxuren Leenengo Jaunartzea. Kontu danak ez dakidaz garbi, baiña ez da errez izango komuniñoko kontuak beingoan garbitzea.

— Ez noatzu nor ta noiz ta nun esatera, baiña bat bi baiño geiago dira Leenengo Jaunartzeko bazkaria, andik urte bira be ordaintzeko daukenak.

— Ori, Kelmen jauna, jatetxean, eta andik kanpora zenbat? Jantziak dirala, erregaluak dirala...

— Konturatuko ziñan zeu be: «almirante», «kapitan», ezkongai» eta olakotan zenbat agertzen dan umetxoen artean!

— Eta erregaluetan sartzen bagara, nok baiño nok geiago eta ederrago.

— Orregaitik dagoz gero umeak zora-biatuta: nok zer ekarri bear ete dausan amesetan. Askorentzat Jaunartzea, erregaluak artzea. Neuri etorri yatan ume bat orain urte bi, bere Leenengo Jaunartze-bezperan, esanaz: Kelmen jauna, ni ez noa jaunartzera; ekarri deuste erregalua».

— Olan ezin leiteke jarraitu, Kelmen jauna. Noraiño eldu bear ete dogu mar-

txa onetan? Eleizeak berak be egin bear leuke onetan gogorrago. Bestelako barriketak edo barrikuntzak itxita, arlo onetan zuzendu gauzak.

— Txomin, kontsejulari ederra zaukadaz gaurkoan! Jakin daizun: Inguruko abade danak asarre baten ibilli oi dira, Leenengo Jaunartzeak inguratzean. Gurasoen batzarrera deitu bai, eta iñok be ez deutsu utsik egingo. Kontua auxe da: Jaunartzea noiz izango dan. Andik aurrera jo ta su, jatetxea bllatu, jantziak prestau eta abar. Ondorengo batzarretara erdirik be ez da agertzen. Sei-zazpi illabeteko arrapalada estua.

— Baiña ez itxi olakorik egiten. Zeuon eskuan dago gogorrago egitea.

— Gure eskuan zer? Ez dozu neuk besteko asarre ta purrustadak entzun ori dala ta eztala. Ez dakizu ondo, Txomin: Inguruko Gotzain, bikario, abade ta erlijioso astintzen dabez eurena lortuteko. Sargoritan kurumiñoak baiño burrundara audiagoa.

— Negozio ederra or nunbaiten! Eleizeak be izango dau bere partetxoren bat, ezta Kelmen jauna?

— Partetxoa zetan, Txomin? Buruaustek oso osoan, bestelako buzkanzik ez da elduten. Iñoiz iñun pesetaren batzuk eskatzen badira, katekistei laguntzeko, edo egindako eleiz-kastuak garbitzeko, izaten da zer esana baztarretan!

— Olan dala, zer da ba gaur Eleizeak gura dauana? Ze jokabide eta eginbide aginduten edo eskeintzen dau?

— Gogoan artu, Txomin: Zuk eta nik Leenengo Jaunartzea egin genduanean, ez zan olakorik ezagutzen. Danen gaiñe-

tik, guraso ta osterantzeko, bai gogotsu prestau jaunartze-egunerako. Alako jaialditxo bat egiten zan; goxokiren batzuk, olgetaren batzuk, eta lengora barriro. Eguneroko bizitzatik asko albortu barik. Jantzi barririk erosten bazan, andik urteetara be erabilteko modukoak.

— Ai ene, Kelmen jauna, lekutako txori kantuekin zatoz! Orrek gaur ipuin politak lez dozuz.

— Ori, ba, Txomin: areik eta oneik ez dira aro ta giro bardiñeko artabaruak. Ordukoak aro ta giro ederrean elduten ziran, gaukoak buru txiki ta bizar aundi geratzen dira, geienbaten.

— Bai, Kelmen jauna, agirian dagoanak, ez dauka erakutsi bearrik. Orain 50 urteko kontuak eta gaurkoak zetan diran bat eta zetan bi jakiteko, orduan eta gaur bizi gareanak dakigu ondoen. Baiña orregaz ni leen bestean geratzen naz.

— Ara, giroa aldatzen danean, gauzarik geienak aldatzen dirala dakusgu: zuzatzen, zelai-soloetan, eta pertsonetan be bardin. Arkaitzean zurdaitzak bris-bris egiten dauanean, ez da kukurik entzuten, ez lore ederrik ikusten, ez makatzik batzen, ez eguzki berotan nurrugorritan eguzkirik artzen.

— A zelako santu-letaniak jo deustazuzan! Ori banekian lendik be, Kelmen jauna.

— Jarraitu daigun, ba: espirituzko ta fedezko gauzetan be, asko esan gura dau aro ta giroak. Aspaldi batetik onuntza egoaldi gogorak jo gaitu; ingurumarian zer entzuten eta ikusten dan ondotxu dakigu. Ortik, gure arteko pentsakera, oitura, jokabide ta bizikera osoa aldatu egin dogu. Eta fedea ez da aizetan aidean, edo kaxan ondo gordeta eukiten dan guza bat, norberak deritxonean gorde naiz agertuten dauan zer-bait, jaiegun berezietarako txamarra bat bailitz. Gizona bera da edo ez da fededun, bere eguneroko bizitza osoan.

Olan dala, ezin lengo moduan eleiz-ara-zoetan be jokatu.

— Eta zeri emoten yako, ba, garrantzirik geien gaur egun?

— Entzun dozu, Txomin: Sakramentuak fede-gauzak dira, eta benetan fededun izan bear, eurak artzeko. Orregaitik, umetxoei bi edo iru urteko katekesia eskatzen yake, baiña baita euren gurasoeoi be ainbat batzarretan parte artzea. Zertarako? Seme-alabakaz batera, eurak be euren siñismena argitu ta indarbarritu dagien... Au da bearrezkoe-na, eta onetan zintzoen dabiltzanak ez deutse ainbeste garrantzi emoten bazkari, jantzi, erregalu ta abarrei; eta bardin besterantza be.

— Banengoan, ba, Kelmen jauna, tramankulu onen ardatza sakonago egoalata. Baiña penagarria da beti be, sakramentuaren barruko guna GALTZEN yakula, azal-oskolagaz geratuaz, au polit ikusgarriena izanda be.

— Eta beste barik, gure Txomin etxerantza abiatu zan, lagun biok alkarri agurrik beroena egin ondoren. Txapelazpian «azur» ederra eroan eban etxera, asteen zear ekin eta ekin egiteko modukoa. Eta neuk be neurekautan gaiñeratu neban: Zorionekoak Txomin eta bere antzeko fededunak, gaurko giro txarrean be, billa ta billa dabiltzanak! Billa dabiltenak aurkituko dau Juangoikoa; obeto esanda, olakoa Juangoikoa zain aurkituko dau eta berari agertuko yako, iru errege santuei izarra, ixkutatu ondoren, barriro agertu yaken lez.

*Egia ez da gure eskuan
geldi dagoan txoria,
atzo, gaur, biar; an eta emen
aldakorra da zoria.
Siñistea da fede,
siñisten dana bete;
Ez da zelaiko loria!
Billa ibiltzen, zintzo jokatzen
izan beti adoria!*